48 11

SAN MAMÉS (Katedrala)

Athetic Club Bilboko hirian egoitza duen kirol klub bat da. 1898. urtean sortu ondoren, Futbol Ligaren lehen mailan iraun du beti eta Kirol Elkarte Anonimo bilakatu ez den gutxienetariko bat da, beraz, bazkideak (45.000 inguru) Klubaren jabeak dira.

Bere ezaugarrien artean, Euskal Herrian jaiotako edo euskal taldeetan futbol prestakuntza jasotako jokalariak erabiltzearena aurkitzen da.

Lehen Mailako Ligako 8 titulu lortu ditu, baita Kopako 23 eta Superkopako 2 ere. Horrez gain emakumeen futbol talde bat dauka ere Lehenengo Mailan eta bertan hainbat Liga irabazi ditu. Bere kolore nagusiak gorria eta zuria dira.

“San Mamés” zaharra (1913-2013)

Alokatutako lurralde batean eraiki zen “San Mamés” babes-etxearen inguru (hortik dator bere izena). Eraikuntza herriaren harpidetzari esker burutu zen, beraz, lanak 1913ko urriaren 20an hasi ziren Manuel María Smith jaunaren proiektu eta zuzendaritzapean. Hasieran, 7.000 ikusleentzako lekua zegoen eta urte bereko abuztuaren 21ean inauguratu zen.

1945ean, Athletic taldeak zelaia kokatzen zen lurraldeko jabe bilakatu zen eta, urteen zehar, hainbat aldaketa garrantzitsu egin dira bertan. Horien artean tribuna nagusi baten eta bere estalkia eusten duen arku handiaren eraikuntza nabarmentzen da (1953). Beranduago hainbat tribuna erantsi ziren: hegoaldekoa (1956), iparraldekoa (1962) eta ekialdekoa (1972). Lan horiek guztiak birmoldatze orokor batekin osatu ziren, 1982ko Futboleko Mundu Txapelketaren egoitzetako bat izendatu zutelako. Orduan, bere edukiera 46.000 ikusleetara arte iritsi zen, nahiz eta 40.000era murriztu behar, nazioarteko kirol erakundeek ezarritako segurtasun araudia bete ahal izateko.

“San Mamés” (2013-)

1990eko hamarkadan, San Mamés zaharraren kontzeptua zaharkituta geratzen ari zen, oraindik zutik egoteko jarlekuak zituelako, zenbait segurtasun arazo eta minusbaliatuak sartzeko zailtasunak eskaintzen zituelako.

Hirigintza planeamenduko tresnetan beharrezko aldaketak egin ondoren, ordura arte Bilboko Erakusketa Azokak okupatutako lurraldeetan estadio berria eraiki ahal izateko, San Mamés zaharrarekin mugatuz, 2006. urtean Azoka eraisten hasi ziren, eta 2010. urtean zelai berria eraikitzeari ekin egin zioten, ACXT-IDOM estudioak diseinatuta.

Haren finantzazioa Athletic club taldetik, Bizkaiko Foru Aldunditik eta Kutxabank enpresatik (50 milioi euro erakunde bakoitzeko) eta Bilboko Udaletik (11 milioi) etorri zen. Hura kudeatzeko, 2007. urtean San Mamés Barria Elkartea sortu zen.

Estadio berriak eta zaharrak lurraldeko sektore txiki bat partekatzen zutenez, lehendabizi ipar, hego eta mendebaldeko tribunak eraiki ziren, estadio zaharraren funtzionamendua oztopatu gabe. Azken hura eraitsi ondoren, berriaren ekialdeko tribuna eraiki ahal izan zen, Ligako oso partida gutxi galduz. Prozesu hau erraz jarrai daiteke aukeratutako ortoargazkien bilduman.

San Mamés (Berria) 2013ko irailaren 16an inauguratu zen. Bertan, 53.000 ikusleentzako lekua zegoen.

Zelaiaren etxabeetan atletismo pistak eta erabilera publikoko kiroldegi bat aurkitzen dira.

Gehiago jakiteko: *San Mamés, Memoria e Historia de La Catedral* / Joseba Moro. Bilbao, 2013. - 448 p.



Ortoargazkia 2004. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Koordenadak: UTM 30N ETRS89 // X: 504164.4812 // Y: 4790083.1309 // Z: 23 m.

San Mamés Zelai historikoa. Argazkiaren ezkerraldean oraindik Bilboko Erakusketa Azokaren eraikinak ikus daitezke. Horiek laster eraitsiko ziren “San Mamés Barria” barne hartzeko.



Ortoargazkia 2011 Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi;.

Dagoeneko, Erakusketa Azokaren eraikina eraisten hasi da (argazkiaren ezkerraldean), bertan makinen joan-etorriak ikusten dira; baina San Mamés barria oraindik pikotxaren eragina jaso gabe dago.



Ortoargazkia 2012 Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi; PNOA

Ikus daiteke San Mamés Barriaren lau tribunetako hiru eraikitzen ari direla, San Mamés Zaharrak, berriz, oraindik zutik diraun tribuna nagusiaren estalkia eusten duen berezko arkuarekin, Bilboko taldeko partidak normaltasunez hartzen jarraitzen du.



Ortoargazkia 2013 Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

Estadio berria eraikitzea oztopatzen zuen estadio zaharraren tribuna eraitsi egin da, zelaiaren gainontzeko elementuekin batera (2013ko ekaina) eta estadioa bere ekialdeko sektoretik itxiko duen tribuna berria eraikitzen ari da. Soropila osorik dagoenez, partidak estadio berrian antolatzen jarraitu ahal izan zen, nahiz eta edukiera murriztuarekin izan, aipatutako ekialdeko tribuna oraindik falta zelako.



Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi; Geografia Erakunde Nazionala.

Koordenadak: UTM 30N ETRS89 // X: 504107.8325 // Y: 4790151.6582 // Z: 25 m.

San Mamés (berria): Katedral berria amaituta, ia Bilboko Athletic Club taldeko Futbol zelai historikoaren kokapen berean.